



IMANOL PRADALES

2024ko martxoaren 2an

EAJ-PNVren omenaldia aztarna utzi diguten emakume guztiei

Aitorpen batekin hasiko naiz. Orain dela egun batzuk Mireia gerturatu eta esan zidan...

- Imanol, nahi genuke Berdintasunaren gaineko ekitaldian zuk parte-hartzea...
- Bai, noski, asko interesatzen zait. Han izango naiz, erantzun nion.
- Eta berak: bai bai... baina nahi genuke zuk hitza hartzea.
- Nik? Nik? Baina...nik egun horretan entzuteko gehiago daukat esateko baino...

Azkenean hemen goian nago. Bistakoa da konbentzitzeko gaitasun handiagoa duela Mireiak nik baino. Egund horretan bertan pentsatu nuen aukera ezin-hobea nuela nire aurrean gauza bat egiteko: eskerrak emateko. Merezitako aitortza zintzoa egiteko. Eta helburu horrekin etorri naiz gaur: apaltasun osoz eta entzuteko eta ikasteko gogo guztiarekin.

Todo el mundo tenemos a alguien que ha marcado nuestra vida. Alguien que nos ha dejado huella a lo largo de nuestra vida. Lo he dicho en cada ocasión que he tenido. Lo habéis visto en el vídeo. En mi caso, esa persona que ha marcado mi vida ha sido mi ama. Por supuesto, también aita. Pero hoy, sobre todo, quiero remarcar el papel que ella ha tenido en mi vida. Soy el mayor de cuatro hermanos, todos chicos, de una familia de humilde de Mamariga, de Santurtzi. Un barrio obrero, de la margen izquierda. Años 80, 90... Lo común en aquel entonces eran las familias, como la mía, en las que el aita trabajaba de sol a sol. Y ama era, como decimos aquí, etxekoandre, ama de casa. Esa era la normalidad en mi entorno. Un entorno marcado por estereotipos sexistas, dicho claramente. Hombres que traían el dinero a casa y mujeres a cargo de la familia, de las tareas propias del hogar. La realidad era bien distinta a la de hoy.

Había muy poco margen para el feminismo y el empoderamiento de las mujeres, tal y como lo concebimos hoy. Pero con la mirada actual, me doy cuenta de que en aquella Mamariga de etxekoandres había un patrimonio silencioso. Una revolución emergente. Aquellas mujeres de Mamariga, como mi ama, estaban sembrando una semilla para la revolución feminista. Una semilla que pocos años después, pueblo a pueblo, veríamos crecer. Mujeres llenas de energía, activas, luchadoras, con opinión propia, con criterio, con libertad para organizarse y gestionarse (como hicieron en Mamariga al crear el grupo Ederrak). No abanderaban ninguna causa. Simplemente, asumían una responsabilidad. Sabían que, si ellas no lo hacían, nadie lo haría. Y ese paso adelante que dieron marcó la diferencia. Este país no sería lo que hoy es sin su esfuerzo y sacrificio. Les debemos lo que somos. Mi ama y sus compañeras, todas las mujeres de Euskadi, estaban abriendo camino.

Recuerdo bien los años más complicados... Aita, al igual que muchos hombres, perdió el trabajo y... ¿quién estaba ahí para dar el paso? Ama se remangó y empezó a fregar clases y escaleras en la haur eskola Bihotz Gaztea para llevar cuatro duros a casa.

Años después tomé conciencia de que había tenido en casa no solo a la mejor ama, sino también una gran referente de vida. Ama me transmitió valores esenciales: el respeto a la dignidad propia y el respeto a la persona de enfrente. El valor de ser libre. Que la libertad y la democracia estaban por encima de todo, y que la violencia jamás estaba justificada, bajo ningún concepto. Esa era la base sobre la que construir una adecuada convivencia. También me enseñó valores fundamentales como la humildad, la empatía, el afecto... lo importante que es escuchar para poder ser escuchado. La importancia de amar para poder ser amado. Me transmitió la cultura del sacrificio, el trabajo y el esfuerzo. Valores como la valentía, la responsabilidad o la integridad. Pero su enseñanza no acababa ahí. También me inculcó la obligación de transmitir todo eso que me había enseñado a quienes vinieran en un futuro. Que éramos un eslabón más de una cadena que nunca debía romperse. Espero saber hacerlo con mi hija.

Eskerrik asko, ama! Bihotz-bihotzez, eskerrik asko!



Hori eta askoz ere gehiago erakutsi digu amak. Eta aztarna hori ez zaigu inoiz ere ezabatuko. Berari zor dizkiot nire mundu-ikuskerak markatu dituzten balio garrantzitsu horiek. Nire ibilbidearen iparrorratza dira. Nire konpromisoa da han eta hemen, nagoen tokian nagoela, zabaltzen eta hedatzen jarraitzea. Nire konpromisoa da etorkizunean Herri honen gidaritzan, euskal gizarteak hala nahi badu, balio horiek izatea nire bideorria.

Euskadik emakume erreferente handiak izan ditu bere Historia luzean. Asko eta asko ixilean aritu dira lanean. Askok euren lana estalia ikusi dute zuzenean. Baina azken urteetan, 'arkeologia' lan fin eta bikain bati esker, azalera atera dira... Horren adibide argia dira 1922an Emakume Abertzaleen Batza sortu eta bertan Herri honen alde lanean aritutako milaka emakume. Euskal Pizkundean, edo garai oso konplexu eta ilunetan lanean aritu zirenak ere: gerran, gerraostean eta diktaduran. Haien kateari jarraipena emanez, trantsizioan, demokrazian eta Euskadiren erakundetzean, autogobernuaren garapenean, eta orohar herrigintzan eta Nazio eraikuntzan, hor egon zarete emakumeak. Beti lanean. Eskerrik asko denoi!!

Emakumeen bultzada geldieztina da Euskadin. Berdintasuna eta feminismoa egungo gizartearen iraultza handienetakoa izan dira, eta izaten ari dira. Berdintasuna gizarte aurreratu baten ezinbesteko zutabea da. Bere muinean egon behar da, ezinbestean. Eta berdintasuna ezin da hitz soiletan geratu. Berdintasuna erabakiak dira, ekintzak dira, konpromisoak dira. Berdintasuna giza eskubide kontu bat da, horregatik, anbizioa eta arnas luzeko begirada eskatzen ditu. Berdintasuna da emakumeak protagonistak izatea; gizartearen esparru guzti-guztietan erabakiak hartzea. Berdintasuna indarkeriarik gabeko bizitza askeak dira, beldurrik gabeko bizitzak, askatasunez gozatu, jantzi eta harremantzen diren bizitzak. Berdintasuna da zaintzen ardura partekatzea, gizonen inplikazio aktiboa eskatzen duena. Berdintasuna hezkidetzak da (etxean, familian eta eskoletan), benetako berdintasuna helburu duen heziketa eredua sustatzea. Berdintasuna

emakumeen ahalduntzea da, emakumeen saretzea da, eta mugimendu feminista da. Hitz gutxitan esanda: berdintasuna guztion ardura da. Eta, bereziki, gizonen, gure, nire, inplikazioa eskatzen du.

Baina lortutakoak ez du balio bide berean indartsu jarraitzen ez badugu. Atzera egiteko arrisku eta mehatxu garbiak daude gure gizarte eta inguruan. Eta argi esaten dugu: ez dugu atzerapausorik onartuko! Ez dugu atzerapausorik onartuko! Atzera ez egiteko modu bakarra aurrera egitea da. Berdintasunean aurrera. Gelditu gabe, pausoz pauso. Euskadi Genero Berdintasunaren Indize onena duten Europako 7 herrialdeen artean kokatuta dago. Baina ez gara konformatzen.

Nik gaur nire konpromisoa berresten dut berdintasunarekin. Horregatik, gaur eta hemen, traineru honetara igotzeko deia luzatzen diet Herri honetako ni bezalako milaka eta milaka gizoni. Hartu dezagun benetako konpromisoa gizarte eta Euskadi berdinzale baten alde. Konpromisoa giza eskubideen errespetuaren alde. Konpromisoa egiturazko desberdintasunari eta indarkeria matxistari amaiera ematearen alde, Konpromisoa tratu eta aukera berdintasunarekin, Begirada aldatzearekin, Zaintzekin, hezikidetzarekin, kontziliazioarekin... Konpromisoa emakume eta gizonen benetako berdintasunarekin, eremu guztietan, eta bizitzako une guztietan. Egin dezagun gure amengatik eta gure alabengatik. Guztiengatik.

Eskerrik asko!